

Donostia, 2020ko uztailaren 17a

UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI

HONDARTZETAKO ZAINZA ETA SALBAMENDU ZERBITZUARI BURUZKO KONTROL MOZIOA

Elkarrekin Donostia udal talde politikoko zinegotzi Haizea Garay Gallastegui naizen honek, indarrean dagoen Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua babesean, honako KONTROL MOZIO hau aurkeztu dut, GUNE PUBLIKOEN BATZORDEAREN (OBRAK ETA HIRI ZERBITZUAK) bilkuran hondartzetako zaintza eta salbamendu zerbitzuari buruz aurkeztutako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Hondartzetako zaintza eta salbamendu zerbitzuko langileen subrogazioa aspalditik datorren gaia da, baina, zoritxarrez, hondartza denboraldiaren hasieran baino ez da ikusgai egoten herritarrentzat. Udaro, sektore horretako profesionalak berriro ere lan egonkortasuna bermatzea aldarrikatu behar izaten dute, eta auzi hori Donostiako Udalaren esku dago.

Joan den ekaineko osoko bilkurara eraman genuen arazo hori, zerbitzua ekainaren 15ean hasi baitzen eta, hala ere, zerbitzuan hasi ez ziren aurreko urteetako langileak zeuden. Hala ere, ez zuten jo premiazko gaitzat.

Gaur egun, ia sasoiaren erdian gaude eta zerbitzuaren langileei eragiten dien arazoak oraindik konpondu gabe dirau. Eragindako langileak ez dira sartu eta, gainera, arazo gehigarri bat dute: Udaltzaingoak zigortu egin ditu pankartak jartzeagatik, pankarta horietan haien egoera salatzen bazuten ere. Garbiketa Zerbitzuko langileak udaltzainekin batera joan ziren pankartak kentzera,

14an, eta, hala ere, oraindik ez dituzte txukundu aldagelak, aurten, hain zuzen ere, premiazkoagoa delarik garbitzea eta desinfektatzea.

Zerbitzua gatazkan egon denez azken hiru denboraldietan gutxienez, kontratatutako langileak ez subrogatzea ez da COVID-19ak eragindako geldialdiak eragindako aurreikuspen faltaren ondorioa. Langileen eskubideen inboluzioa da, erabaki politiko baten ondorioz. 2018an, salbamendu zerbitzuko langileek beren lan baldintzak hobetzeko eskatu zutenean —horrek greba bat eragin zuen lurraldean—, Donostiako Udalak bazuen zerbitzu horretako langileen subrogazioa kontratazio pleguetan jasota. Greba amaitzeko sinatutako hitzarmenarekin, 2019an hobekuntza batzuk sartu zituzten, besteak beste, zerbitzuko langileen subrogazioa —Orio, Zarautz eta Zumaian, adibidez—; Donostian, berriz, justu kontrakoa egin zuten, hau da, zerbitzuko langileak subrogazioa bermatuta izatetik eskubide hori galtzera igaro ziren.

Hala, hondartzetako eta uharteko zaintza, salbamendu eta laguntza zerbitzua esleitu zen, bai eta Kontxako hondartzako lagundutako bainu zerbitzua ere, publizitaterik gabeko prozedura negoziatu baten bidez lizitazioa egin ondoren. Izan ere, aurretik aurkeztutako eskaintza bakarra kanpo geratu zen, eta, ondorioz, hutsik geratu zen 2019ko otsailaren 26an Gobernu Batzarrak onartutako lizitazioa. Azkenean onartutako lizitazioan ez zen sartu zerbitzua ematen ari ziren langileen subrogazioa, eta horrek ondorioak ekarri zizkien langileei, zerbitzuan zuten antzinatasuna ez baitzitzaien aitortu. Hala, 2020. urterako, udal Gobernuak subrogazioa kanpoan utzi du berriro, eta, horren ondorioz, hainbat langile ez dira oraindik zerbitzuan hasi.

Zentzu horretan, lan baldintzak eta baldintza material duin eta kalitatekoak bermatzeko, eta, epe laburrean, langileak subrogatzeko, udal Gobernuak aztertu beharko luke zerbitzua udalekotzeko aukera. Urtaroen arabera zerbitzua da, baina sorosle, kiroldegi eta hondartza guztiak zerbitzu publiko gisa har litzake. Horrela, langileek lan egonkortasuna lor lezakete, gatazkak gehiago iraun ez dezan.

Bestalde, 2019ko uztailean, mozio bat planteatu genuen, salbamendu eta bainu lagunduaren zerbitzuetan materialik ez zegoelako, eta, aurten, berriro egon da material falta denboraldiaren

hasieran. Hori, jakina, zerbitzuaren kalitatearen kontra doa. Zehazki, zerbitzua hasi eta 10 egunera, langileek ez zuten lanerako behar zuten materiala, edo ez zegoen behar bezala. Kalitateko zerbitzua bermatzeko, batez ere herritarrentzako oinarrizko zerbitzu bat izanik, ezinbestekoa da zerbitzuek, abian jarri baino lehen, beharrezko bitarteko guztiak izatea. Hori dela eta, guk uste dugu beharrezko neurriak hartu behar direla, ahalik eta lasterren, bitartekoak falta izatea ez errepikatzen.

Aurten, gainera, COVIDaren pandemia dela eta, osasun neurriak eta distantzia fisikokoak ezarri behar direnez, gaixotasuna zabal ez dadin, beharrezkoa izan da zerbitzuan jardura protokolo berriak ezartzea. Hala ere, denboraldiaren hasierako baldintzak direla eta, alarma guztiak piztu zaizkie zerbitzuko langileei. Zerbitzua materialaren aldetik gainbegiratzeko beharraz gain, udal Gobernuak parte hartu behar du, COVIDaren pandemiaren ondorioz ezarritako jardura protokolo berrien inguruan, langileen prestakuntza zein baldintzetan egin den ikuskatzeko.

Hori dela eta, honako hau aurkezten dugu

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari hertsatuki eskatzen dio, hondartza denboraldia hasi aurretik, sorospen zerbitzuak beharrezko baliabide material guztiak dituela eta egoera onean dagoela gainbegiratzeko.
2. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari hertsatuki eskatzen dio zerbitzuko langileek COVIDaren pandemiaren ondorioz ezarritako jardura protokolo berriei buruzko prestakuntza behar bezala eta garaiz jaso dutela egiaztatzen.
3. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari hertsatuki eskatzen dio sorospen zerbitzuaren kontratuaren pleguetan zerbitzuko langileak subrogatzea sartzeko.
4. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari hertsatuki eskatzen dio salbamendu eta sorospen zerbitzua udalekotzeko aukera aztertzen.

Haizea Garay Gallastegui,
Elkarrekin Donostiako zinegotzia.